



Hezkuntzaz mintzo bagara, haziez hitz egiten ari gara, fruituez baino gehiago; ereiteaz, ez uzta jasotzeaz; norabidea zehaztu eta bidean abiatzeaz ari gara.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 15ean

## IKASLE BERRIAK//2018/2019 IKASTURTERAKO ESKAERA OFIZIALA

### HAUR HEZKUNTZA, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Guraso agurgarriak:

2018ko urtarrilaren 15eko EHAAn argitaratu den Aginduan, 2018ko urtarrilaren 15ekoa, 2018/2019 ikasturterako izen-emate ofizialaren epea zabaltzen da honako mailetan: Haur Hezkuntzan (2,3,4 eta 5 urte), Lehen Hezkuntzan eta DBHn. **Egiteko epea urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra arte (b.b.).**

Eskaera egiteko Chaminade eta Lestonnac Eraikuntzetako Idazkaritzara jo dezakezue, ordu hauetan:

- Lestonnac Eraikuntza: 8:30etik 13:30etara eta 14:30etatik 17:00etara. (Otsailak 2, ostirala, itxita arratsaldez)
- Chaminade Eraikuntza: 8:30etik 13:00etara eta 15:00etatik 17:30etara.

Bertan, eskaera-orria bete eta Idazkaritzan utzi dezakezue. Honetaz gain, dokumentu hauek atxiki behar dituzue:

#### Derrigorrez aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Familia-liburuko orrialdeen fotokopia, ikasleari eta guraso edo tutoreei dagozkienak.
- NAN edo AIZ-aren fotokopia, aitarena eta amarena edo eskaera egiten duen tutorearena.
- Familiaren egoitzaren ziurtagiria (familia-unitateko kide guztiak), Udaletxeak luzatutakoa.
- EAEtik kanpo eskolatutako ikasleen kasuan, egindako ikasketen ziurtagiria, argi eta garbi adieraziz zer maila egiten ari diren une horretan.

#### Hautazkoa den dokumentazioa:

- Familia Ugariaren liburuaren fotokopia.
- Desgaitu-ziurtagiria, ikasle, aita, ama, tutore edo anai-arrebena.
- Lantokiko ziurtagiria, aita, ama edo legezko tutorearena.
- Aita edo ama ikasle ohia izatearen aitopena.

Agur bero bat,

Javier Cortés Soriano  
SUMMA Aldapetako zuzendaria